

# 1936. ondorengo atzerrian aritu ziren zenbait nafarren ahaleginei buruz

JESUS PABLO CHUECA INTXUSTA

1936/1939.ko gerratea amaitu baino askoz lehenago erbesteratuen mugimendua hasi zen zenbait lurraldetan. 1936.ko uztailaren 18 edo 19ko altxamendua arrakastatsua suertatu zen lekuetan, hain zuzen ere, batzuentzat bere herrietatik, bortxaturik, izuturik eta izkutuan ateratzeko deiak jo ez ba zuen ere, erreketek, falangista eta militarrek sortarazi zituzten hilketak, gartzelamendu eta mota guztietako irainek beren bitokiak uztera behartu zituzten.

Nafarroa izan zen eskualde hauetako bat. Gerra piztu zenetik sarraski eta erreprezio basatiaren lekua izateaz gain, iheslari anitzen lurraldea bilakatu zen<sup>1</sup>. Militante ezkerkiar, errepublikazaleak eta euskal nazionalistak izan ziren zigor eta mota guztietako basakerietatik ihes egiteagatik mugaz bertzaldera edo Estatuko bertze lurraldeetara joan zirenak.

Gaur egun ezin bertzekoak lirateken talde hauen zenbatasunezko ikerketak oraindik egin gabe dirauten arren, pixkanaka pixkanaka ezagutzen ari gara atzerrira joateko beharturik izan ziren zenbait nafarren egoera eta jokabidea.

Izan ere, azken urteotan zenbait ikerlan orokorrei esker erbesteratuen ahaleginak gero eta ezagunagoak bait ditugu eta lekuan lekuko eta lurraldez lurraldeko ikerlanak burutuz gero ikuspide orotariko hauek ñabardura guztiekin aberastea itxaron dezakegu<sup>2</sup>. Asmo honekin, guk aztertu ditugu Argentinara hurbildu ziren zenbait nafarren lan kultural zein politiko batzuk.

## ARGENTINA, EUSKALDUNEN ATZERRILEKU

Gerrateko urteetan eta ondorengo hilabeteetan euskaldun gehienak Frantziaratu ba ziren ere, 1940.ko ekainaz gerotik, Estatu honetaz alemaniarak jabetu zirenetik, aintz izan ziren Atlantikoz bertzaldera bideratu zirenak<sup>3</sup>. Euskal erakundeek bultzatu-

1. ALTAFAYLLA KULTUR TALDEA, *Navarra de la esperanza al terror. Iruñea*, 1986.

2. EGILE BATZUK, *El exilio español de 1939*. Madrid, 1978.

SAN SEBASTIAN, K., *El exilio vasco en América*. Donostia, 1978.

NAVARRO J.M. ETA BERTZE BATZUK, *El exilio de las Españas en las Américas*. Barna, 1991.

3. SAN SEBASTIAN, K., Aipatutako lana.

rik 1941.ko urtarrilatik aurrera 4000 euskaldun inguru Ameriketara joan ziren. Hauei buruz oraindik zehaztasun haundirik, ez ba dugu ere, nafar kopuru bat ba zela pentsatzekoa da. “Comité Vasco de Inmigración” delakoak burututako lehen zerrendan 115 erbesteratuetatik 17 nafarrak ziren<sup>4</sup>.

Atzerritar hauek kontinente amerikar osoan zehar barreiatu ziren zenbait lurraldeetan, Venezuela, Mexiko, Txile, Argentinan errate baterako, oso komunitate haundiak osatuz. Jakina, gerrateek eragindako emigrazio hau gauzatu zeneko euskaldun makina bat zegoen Amerikan, lehenago mendeetatik zetorren fenomeno migratzaileak orniturikoa, hain zuzen ere.

XIX eta XX. mendeetako hamarkadetan Euskal Herriko zazpi lurraldeetatik, arrazoi ekonomikoak zirela medio, euskaldun ugari itxaso zeharkatu zuen ogibidearen bila<sup>5</sup>. Anitz izan ziren helburu hau ederki lortu zutenak eta honen ondorioz, sektore ekonomiko batzuetan, euskaldunen garrantzia arras nabarmena izateaz gain, euskal erakunde batzuk hasi ziren antolatzen Euskadirekiko herrimina biguntzeko asmoz.

1877.tik aurrera Argentinan, errate baterako, “Laurak bat” erakundearen antzekoak nunnahi sortarazi zituzten, herri honen geografia osoa mota ezberdinetako euskal elkarteetatik zipristinduz.

Idea nazionalistak, ere, laister errotu ziren Sebastian Amorrortu, Policarpo Barrera, I. Etxebarria eta bertze abertzale batzuei esker. Hauek argitaratu zituzten Sabino Arana, Daniel Irujo, eta aita Ibero bezalako nazionalismoaren aitzindarien testuak baita kutsu abertzale zuten zenbait alkizkari ere<sup>6</sup>.

Hau zela eta, 1933.tik aurrera “Acción Vasca” deitzen den erakundeak Eusko Alderdi Jeltzalea bera Argentinan ordezkatzeko du jeltzale den oro bere baitan bilduz. Nazionalismoaren egitura hauek, noski, agitz sendotuko dira euskal atzerritarren etorrerarekin. Are gehiago, Eusko Jaurlaritzak bere ordezkariaren lanak burutzeko bidalitako taldea, Ramon M. Aldasoro, Ixaak Lopez Mendizabal, Santiago Cunchillos eta Pablo Archancok osatua, 1938.ko Azaroaren 15.ean Buenos Airesera iristen denean<sup>7</sup>.

Hauek Aldasororen zuzendaritzapean lan eskerga burutu zuten Euskal errefuxiatuen etorrera laguntzako baita euskal problematika ezagutarazteko ere. Ildo honetatik, 1939.ko maiatzaren 10.ean. “Euzko Deya” lehen aldiz karrikaratu zuten. Aldizkari honek izenburu berdinarekin Parisen argitaratzen zenaren eredia jarraitzen zuen eta laister arrakasta haundia erdietsi zuen Amerikako euskaldun guztien artean<sup>8</sup>. Kontinente honetako eskualde gehienetan kolaboratzaile ugari izanik, ez ziren gutxi nafarrak. Bertzeak bertze, Andres Irujo, Hilario Olazaran, Jesús Artola, Miguel José Garmendia eta Pablo Archancok maiz idatzi egin zuten<sup>9</sup>.

Buenos Airesko Eusko Deyak 2000 ale inguru karrikaratzen zuen, “Euzko Deya” hauetatik 1100 harpidedunen bitartez. Ale anitz Londres, Mejiko, Paris, Txileko Santiagora bidaltzen zituzten. Publikazioak bere errola, Eusko Jaurlaritzaren bozeramaile

4. *Homenaje al Comité pro Inmigración Vasca en Argentina 1940*. Donostia, 1988.

5. ZUBILLAGA, E., *Euskaldunak Argentinan*. Buenos Aires, 1972.

6. ASTIGARRAGA, A., *Abertzales en la Argentina*. Bilbao, 1986.

7. SAN SEBASTIAN, K., Aipatutako lana.

8. RUIZ DE GAUNA, *Catálogo de publicaciones periodísticas vascas*. Argitaratu gabe. *Euzko Deya*.ren berrargitarapena. Donostia, 1979.

9. SAN SEBASTIAN, K., Aipatutako lana.

*Homenaje al Comité de Inmigración Vasca en Argentina 1940*. Donostia, 1988.

izatearena, ontsa betetzen zuen baina laister antzeman zuten bertze maila batetara ihardungo zuen aldizkari baten premia<sup>10</sup>.

Bertzalde, bertze uneetan, XIX mendean adibidez, Argentina alderuntzko etorkinen mugimendua askoz haundiagoa ba zen ere 1936/39 ondorengo migrazioa, bere kopurua eta nolakotasuna kontutan hartuz oso desberdina zen. Askoz jende gutxiago, baina Argentinera zirenen artean politikari eta goi mailako profesional anitz zegoen.

Erbestean egoteak ez zuen errezten intelektual eta profesional hauek burutu zituzketen lanak. Alde batetik, pairatzen zuten egoera berriak, hau da, bere sorterritik indarrez kanporatua izatea eta baldintza arras ezberdineko gizarte batetan laketzeak, grina eta zaletasun guztien gainetik ogibideari ekin behar ziotela suposatzen zuen. Eta bertzetik, haiek zituzten ideia eta gogoetak plazaratzeko ez zegoen ez biderik ezta giorrik ere.

Hutsune honi irtenbide bat bilatzeko zenbait erberastuek argitaletxe bat martxan jartzea erabaki zuten. Hauetarik garrantzitsuenetako bat Andres Irujo dugu. Lizarrako familia abertzale ospetsuaren partaide gazteenetakobat. 1936.ko gerratea hasi zenetik bere anaia Manuelen idazkaria izan zen, Madrilan eta Katalunyan. Gerra bukatu eta gero, Frantzia egon zen alemaniarren okupazioa iritsi arte. Hau gertatu zelarik, Amerika aldera, Argentinaruntz, abiatu zen<sup>11</sup>.

Bera izan zen, argentinara bezain laister, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria zen Aldasororengana joan zena aipatu argitaletxearen ideia azaltzera. Horrela argudiatu zuen ahalegin kultural horren premia: *“Liburuak oso beharrezkoak ditugu intelektualengana jotzeko. Euskaldun intelektual anitz dugu Amerikan eta mundu kulturalaren amerikar askok euskal arazoa erazutu nahi dute. Jaun hauei arreta apur bat eskeintzea Gobernuak dituen urte beteko aurrekontuak bezain premiazkoa da. Euskal Herriak bere izateari eutsi ziezaion zerbait izan behar du, zeren azken batean gure herriak izan dituen luebakien antzekoa izan behar bait du Argitaletxeak, Haiek tirozkoak ba ziren ere, hauek, aldiz, ideienak. Eta azken hauen kontra Francok ezin izango du<sup>12</sup>».*

Aldasorok erabateko adostasuna erakutsi zion Andres Irujori baina, era berean, berak antzematen zuen oztopurik gaituzteazina azaldu zion, hau da, ekintza hau eramateko ezinbertzekoa zen dirurik eza. Argentinan zegoen euskal erakunde gorena, hots, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak ongi ikusten zituen ahalegin kultural hauek baina dirua faltagatik zoritxarrez amore eman behar izan zuen.

Hau zela medio Lizarrako abertzale sutsu hau Isaak Lopez Mendizabalengana bideratu zen. Azken honek bere baitan bi zaletasun eta ahalmen haundi biltzen zituen, euskal kulturaren zein inprimagintza tekniken ezagutzarena. Euskal gaietan oso idazle trebatua zen eta biziki ezagunak dira berak gerra aurreko urteetan idatzitako “Euskal Gramatika” eta “Euskal Hiztegia”. Inprimatzaile gisa ere, aro berdinean, Tolosan zeukan inprimategian, euskal liburu eta aldizkari anitz argitara eman zituen. Urte hauean sortzen hasi ziren Ikastoletako liburuetatik (Martin Txilibitu, Xabierto, Euskal Lutelestia,...) Antzerti bezalako aldizkarietaraino.

10. MIKEL EZKERROK emandako lekukotasunaren arabera. Buenos Aires, 1990.ko abenduaren 28ean.

11. ANDRÉS DE LIZARRA (Irujo tar A.ren izengoitia) *Los vascos y la República española*. Buenos Aires, 1944.

12. ANDRÉS IRUJOK emandako lekukotasunaren arabera. Buenos Aires, 1990.ko abenduaren 27ean.

Irujoren nahiak eta Lopez Mendizabalen zaletasuna zein trebetasunak bat eginik honi esker, atzerrian izango zen lehen euskal argitaletxea martxan zegoen. Bere estrai-neko liburua Artuko Kanpionek idatzitako “El genio de Navarra” izan zen, 1000 ale karrikaratu zituztelarik. Tirada honen balioari aurre egiteko lehen lehenik harpidetza kanpainari ekin zioten. 400 harpidedun baino gehiago lorturik, liburu hau argitaratu zuten. Arrakasta egundokoa izan zen. Lau hilabetez Kanpionen idazlana erabat agorturik bait zegoen<sup>13</sup>.

Liburuen tiradak gorantza zihoazen, bigarrena “Primitivos Emigrantes Vascos” 1700 alez atera zen eta hirugarrena “Viajeros Extranjeros” Mitxelena izengoitiaz Julio Garatek idatzi zuena 2500ko mugara heldu zen<sup>14</sup>.

Hala ere, liburu arrakastatsuen, “¿Para qué?” izenburu zuena, 5000 alerekin, euskal esparru kultural eta polikoetatik erabat kanpo zegoen egile batengandik etorri zen. Juan Antonio Ansaldorengandik hain zuzen ere. Monarkia alfonsinaren jarraitzaile honek, 1950.ean burutu zuen Francoren altxamendu eta erregimenaren kontrako liburu kritiko hau, nun Errepublika hasi zenetik 1949ra bitarteko aroa aztertzen duen errebolta frankistaren funtsak kolokan jarritz. Oroimen idazlan honek, alde frankistatik etortzeagatik esparru eskuindarraren informazio oso zabala eskeintzen zuen, zenbait sektore hauen arrenkura eta dezepzioa isladatuz.

Ansaldoren liburuak erdietsitako salmenta izugarriari esker EKIN argitaletxeak bere zorra guztiak desagertarazi zituen. Bide batez aukera izan zuen hasierako kapitala emendatzeko. 1943.ean Erantzukizun zibil mugatuko sozietate era hartu zuenean bere kapitala 15000 pesokoa ba zen ere, 1950rako bikoiztu egin zen, elkarrearen jabetza lau partaidez osaturik geldituz. Hauek Pello eta Andres Irujo, Xabier eta Isaak Lopez Mendizabal ziren<sup>15</sup>.

Argitaletxe honek argitaratu zituen liburuak lau ataletan sailka ditzakegu. Lehen, eta izenburu kopuruari begiraturaz garrantzitsuena izan dena, “Euskal kulturaren Biblioteka” deitutakoa. Sail honetan 1988.ra iritsi bitartean 73 liburu argitaratu ziren. Hauen bitartez Euskal Herriko eremu kultural ezberdin batzuk, Literatura, Historia, Arte, Legislazio, Usadioak, etab. jorratu ziren.

Zenbait libururen sailkapena burutzea zaila ba da ere, argi antzematen da Historia eta Literaturaren nagusitasuna. Gutxi gora behera, aipatutako bi arlo hauek produkzio osoaren % 64 osatzen dute. Lantzen dituzten gai historikoen artean, Euskal Herriko funtsa politiko zein ideologikoak bermatzeko nazionalistek oso gogokoak ziztuzten zenbait lan agertzen zaigu, hala nola, Boissonaderen “La Conquista de Navarra”, Oruetaren “Sancho el Mayor rey de los vascos”, Kanpionen “El genio de Navarra”.

Bigarren atal batetan, sar ditzakegu Jose Antonio Agirre, Pedro Basaldua, Manuel Irujo eta Alberto Onaindia bezalako buruzagi politikoez izkiriaturako oroimen liburuak (“De Gernika a Nueva York pasando por Berlín”, “Con los alemanes en París”, “Un vasco en el ministerio de justicia”... etab.) edota gaurkotasun handiko arazo eta eztabaidei aurre egiteko saiok (“La Comunidad Ibérica de Naciones”, “En defensa de la verdad. Refutación a Mrs. Franceschi”, “La Iglesia como problema en el País Vasco”) Guzti hauez gain, hirugarren sail batetan euskeraz idatzitako liburuak “Euskal

13. Ibidem.

14. Ibidem.

15. Ibidem.

Idaztiak” atalean biltzen zirenak. Atzerrian zeuden euskaldun batzuen olerkiak zein elaberriak kaleratzen zituzten, beste batzuen artean, Telesforo Monzonen *Urrundik*, José Eizagirrearen *Ekaitzpean*, J.A. Irazustaren “Bizia garratza da” EKIN argitaletxeari esker kaleratuak izan ziren. Aipatzekoa dira, baita zenbait itzultzaileek egindako lanak ere, Vicente Amezagaren *Hamlet* edo literatura argentinarraren idazlan enblematikoa den *Martin Fierrorena*, Jakakortaxarenak burutua.

Ez zen ez salbuespen bakana liburu honi eskeinitako arreta berezia. Izan ere, hainbeste euskaldun hartu zuen Argentinak, eta berari buruzko atal zehatz bat ez izan arren, isladapen berezi bat eduki zuen EKINen produkzioan. Herri honetako zientzia gizon eta idazle asko, sortzez argentinarra izanik, guraso edo arbasoen bidez Euskal Herritik zetorrenez, argitaletxearen ezaugarrietan, bi herri hauen arteko atxekimendu eta elkartrukaketa kultural eta politikoa oso sakonki sustraitzen da.

Fenomenu honen lekukoak dira, “Los Gauchos Vascos” Juan Goietxearena, “País Vasco y Estado Español. La solución argentina” Juan José de Guarestirena edota “De Vasconia a Buenos Aires. Historia de una emigración en el siglo XIX” A. Goikotxearena eta abar<sup>16</sup>.

Hala eta guztiz ere, Argentinan erroak eta hainbertze mota guztietako loturak ukaitzeak ez zuen oztopatzen EKINekoek, gauza guztien gainetik, aintzakotzat hartu zuten lehen xedea, hots, liburu eta liburuxken bitartez, Eusko Alderdi Jeltzalearen lanak erreztea. Alderdi honentzat, tresna ideologiko eta politikoak ornitzeko asmoz, lehen aipatu ditugun liburuez gain, neurri txikietako liburuxkez osaturik zegoen bertze bilduma bat “Aberri eta Askatasuna” karrikatzen hasi ziren. Horrela “*Aurreruntz*”, “*Zure Anaia ixilkari*”, “*El caso del clero vasco*”, “*El asesino de los fueros*”, eta bertze hainbertze liburutto Eskalherirratzen zituzten EKINekoek Francoren pean zeuden euskaldunek bertze ikuspuntuak eduki zituzten<sup>17</sup>.

## TIERRA VASCA, ARGENTINATIK EUSKADIRA ZETORREN ALDIZKARIA

Errepublika eta gerra urtetako ANVren aldizkaria zen Tierra Vascaren izen berdinarekin bertze aldizkari bat sortu zen 1950z geroztik Argentinako hiriburuan. Sortzaileak, José Olivares Larrondo, Tellagorri izengoitia oso ezaguna egin zuen kazetari algortarra eta Irujotarren anai gazteena, Pello Mari.

Jakina denez, familia honen anai gehienak (Manuel, Eusebio, Delfín, Josefina, Andrés) Errepublikako urteetan PNVren partaide nabarmenak izan ziren arren, bertze bi, Pello Mari eta Juan Ignazio, hain zuzen ere, ANVrekin lerrokatu ziren alderdi berri hau 1930.ean jaio zenean<sup>18</sup>.

1936.ko gerratea iritsi zenean Pello Mari Kantauriko itsasoan mugaz bertzaldera Eusko Jaurlaritzaren diru kopuru bat zeramalarik frankistek atxilotu zuten<sup>19</sup>. Kartze-

16. EKIN argitaletxearen katalogoa. Buenos Aires, 1988.

17. I. IRUJOREN lekukotasunaren arabera. Buenos Aires, 1990.ko abenduaren 27ean.

18. VIGNAUX, P., *Manuel Irujo, ministre de la République dans la guerre d'Espagne* 1936/39. Paris, 1986.

IBARZABAL, E., *50 Años de Nacionalismo Vasco, 1928-1978*. Donostia, 1978.

IRUJO, JOSEFINA ETA ANDERREN Lekukotasune arabera. Buenos Aires, 1990.ko abenduaren 27, 29 etan.

19. *Diario de Navarra*, 1936 ko irailaren 15.ean.

IBARZABAL, E., Aipatutako lana.

lan urte batzuk igaro ondoren, Madrilen Francoren aurkako Erresistentzia ahaleginei loturik egon zen 1946. arte, hau da, atzerriko bidea hartu zuen uneraino. Hau egin zuenean Argentina aldera bideratu zen zeren hemen bere senide batzuek gain alderdikide anitz ere aurkitzen bait ziren. Bertzalde Buenos Airesko giro kulturala oso gertutik ezagutzeko aukera izan zuen horko argitaletxe ospetsua zen Ateneon urte asko lan eginez ihardun zuelako.

Dena den, Mikel Ezkerroren hitzetan, “oinak” Argentinan “ba zituen ere, bihotza eta burua Euskadin zituen”. Hau zela medio, berehala hasi zen bertze erbesterauekin bilerak eta elkarrizketak burutzen euskal politika nazionalistaren aldeko ekintzak prestatzeko. Abagadune egokiena 1956.ean etorri zen. Urte honetan Peronen erregimena erori zen Aranburu jeneralak agintea eskuratu agintea eskuratu zuelarik. Paradoxikoa dirudi arren, militar honekin izan zen askatasun nahikoa “Tierra Vasca” bezalako aldizkari bat sortarazteko. Eta hauxe da Pello Mari Irujok eta “Tellagorri”k egin zutena.

Biek beren eskutan hartu zituzten publikazio honen ardura guztiak, bat ezik, finantzapenarena. Hau Venezuelen zegoen euskal atzerriarren taldeari zegokion. Argentinan bi euskaldun mota laketzen ziren. Bata etorkin tradizionala. XIX. mendetik arrazoi ekonomikoak zirela medio Amerikaratu zena eta bigarrena, erbestera politikoak, 1936/39.ko gerraren ondorioz etorritakoa. Venezuelen aldiz, bakarrik, bigarren talde hau laketu zen. Eta kopuruari begiratuz Argentinakoarekin gonparatuta askoz txikiagoa ba zen ere, bere homogeneitate politikoa eta ahalmen ekonomikoei esker oso egoera onean zeuden aldizkari honi eta bertze batzuei laguntza emateko.

TIERRA VASCAn nahiz eta gerra aurreko izen berberaz argitaratzen zuten aldizkariarekin lotura anitz eduki, logikoa zenez, bertze ezaugarri desberdin asko zituen.

Bere jokabide politikoan bi ardatz nagusitzen ziren. Bata Frankismoaren aurkako, eta bertzea, euskal ikuspuntu batetik politika baterakoi batena, Eusko Jaurlaritzaren defentsarena, hain zuzen ere. Honek ez zuen oztopatzen, inolaz ere, erakunde honetatik landa zeuden bertze elkarte edo alderdien partaidetza. TIERRA VASCAn historian barrena oso garbi ikusten da, egiazko anitzatasun politikoa, zeren bere orrialdetan CNTtik ETAraino zeuden alderdi guztien eritzi eta artikulua agertu bait ziren.

Bide batez, erran beharra dago ez zela Amerikan zeuden euskaldunei zuzendua, Estatu espainolean frankismoaren pean bizi zirenei baizik. Buenos Airesen argitaratua ba zen ere Euskal Herriko bertako berriemaileek, neurri handi batetan idatzia zen “barne”ko euskaldunek irakur zezaten.

Buenos Airesko Tierra Vascaren historia bi aroetan bana dezakegu. Bere hasieratik 1960 bitartekoa, Tellagorriren zuzendaritzapean igarotakoa. Eta data honen ondorengo, 1975.ko irailean, desagertu arte, Pello Mari Irujoren ardurapean kalera atera zenean. Idazle algortarraren garaietan ardatz antifrankistak lehentasuna zuen bitartean, Irujorenean berriz, orientabide hori ahortzi gabe, ideia abertzaleek pisu garrantzitsuagoa hartzen dute.

Lehenengo urteetan, adibidez, errepublikarren artean edo PSOEn baitan bizi den polemika eta autonomiaren inguruko eztabaidek ohiartzun handia izan zuten TIERRA VASCAn. Tellagorri hiltzen denean, 1960.ko uztailaren 14.ean Pello Maria Irujok hartu zuen aldizkariaren ardura osoa.

Berak aldaketa batzuk bultzatu egingo ditu. Errate baterako, martxan zegoen berriemaileen sarearen zabaltzeari ekiten dio arrakasta handiz. Hemendik aurrera TIE-

RRA VASCAN agertzen den informazioaren gehiengoa Euskaditik bertatik igorritakoa izango da. Bilbo, Donostia eta Iruñetik, hilabetez hilabete, zenbait kolaboratzaileen lanari esker, Argentinan inprimatzen zen aldizkari honek Euskadin gertatzen zen arazo zein mugimendu guztien informazioa eskeiniko du.

Berriemaile hauen artean zenbait bitxikeri zegoen. Ezaguna denez Tellagorri eta Irujo ANVren partaideak ziren eta horregatik ateratako aldizkariari alderdi honen egunkariaren izena jarri zioten. Alderdi berri honen ezaugarri eta nabarmenetako bat bere akonfesionaltasuna zen. Argentinako TIERRA VASCAn ostera, berriemaile gartsuenetarikoen artean zenbait apaiz eta fraide dugu. Donostiako eskutitza idazten zuena, errate baterako, Lizarrako semea baina Gipuzkoako hiriburuan bizitzen zen Julio Ugarte apeza zen. Bilbokoaz, ere, aita Mokoroa eskolapio euskaltzalea arduratzen zen<sup>20</sup>.

Dena den, ba ziren ere, eliza ingurutik kanpo zeuden bertze idazle batzuk. Iruñari dagokionez, bi izan ziren gehien nabarmendu zirenak. Lehena, Pedro Turullols merkataria, “*Desde la plaza del Castillo*” kronika izkiriartzen zuena. Eta bigarren bat, Juan Maria Feliu, “*Carta de Iruña*” delakoa, “Irunsheme” izengoitiaz bidaltzen zuena.

Araban ez zuten berriemailerik lortu. Bai, ordez, Ipar Euskal Herrian. Oso joria zen hemen idazle eta kolaboratzaileen zerrenda. Hasteko ANVko militante historikoa, Gonzalo Nardiz, lehen Eusko Jaurlaritzaren nekazal sailburua, edo Gabriel Goitia, Consejo Consultivo delakoaren lehendakaria bezalakoak. Hauekin batera, atzerrian zeuden bertze zama haundiko politikari zein kultur gizon anitzek sarritan idatzi zuten TIERRA VASCAREN orrialdeetan. Bertzeaz bertze, Martin Ugalde, Jesús Insausti “Uzturre”, Mexikotik Etxabe, Francisco Turrillas, Luis Ruiz de Agirre, Venezuelatik, Iosu Osteritz, Ruiz de Azua “Ogoñope”... etab.

Ez zen arraroa ere, Eusko Jaurlaritzarekiko ezberdintasun eta kritika zorrotzak ziztuzten zenbaiten eritziak aldizkari honetan ikustea. Txilardegi eta Krutwig honen lekuko dira. Laburbilduz, erran daiteke, korronte antifrankista eta abertzale guztietako jendeek parte hartu zutela Irujok 1960z geroztik zuzentzen zuen aldizkarian.

Hau laister jabetu zen jaio eta indar haundiz garatzen ari zen erakunde baten garrantziaz, ETAren muntaz hain zuzen ere. Honen ondorioz, EKIN taldearen partaide gehienak beranduago ETA sortuko zutenak, TIERRA VASCAn kolaboratzaileak bilakatu ziren. Txillardegik, errate baterako, izengoiti honekin, baita “Larresoro” edo “Usako”arekin oso maiz aldizkari honen bitartez plazaratu zituen bere ideia politiko zein kulturalak. Gauza bera egin zuten bertzeaz bertze, Benito Del Valle “Zabala” ize-nordearekin, Jose M. Agirre Bilbao “G. Urizar”ekin, Eneko Irigarai, Xabier Elosegik... etab.

EAJren gazteri erakundeek eta batez ere, Caracasko EGIk bere buruzagien bidez, “Paul Garat” zen Alberto Elosegi edo Iñaki Anasagastiren bitartez parte hartu zuten Buenos Airesko aldizkari honetan<sup>21</sup>.

Baina kolaboratzaile guztien gainera, bi zeharo gailentzen ziren, Manuel Irujo eta Mikel Ezkerro gaztea, hain zuzen ere. Buruzagi abertzale nafarrak artikulu anitz izkiriartzeaz gain, aiez aleko kritikak, artikuluen egokitasuna irazkinduz, bere anaia Pellori bidaltzen zizkion. Bigarrena, Argentinan sortua baina guraso euskaldun zituen gazte abertzale sutsu bat zen. Pello Mari Irujoren laguntzaile bezala, 1965.tik aldizka-

20. M. EZKERROK emandako lekukotasunaren arabera.

21. Ibidem.

ria desagertu zen arte, aritu zen. Euskaltzale amorratua izanik, oso hurbil jarraitzen zuen Euskadiko bizitza politikoaren bilakaera. Berak erabili zituen izengoiti ugariren bitartez, “Mikel Iulen”, “M. Brandts”, “M. Azpiroz”, oso artikulua mamitsuak burutu zituen. Bitxikeri mailan ba da ere, ez legoke gaizki aipatzea, bere ardura pean Emakumezkoen saila zegoela, honetarako “Muskilda” izengoitia erabiltzen zuelarik<sup>22</sup>.

Publikazio honen tirada 1000 alera mugatzen zen. Gehienak abioiez Pariserat igortzen ziren, geroxeago, hauetako kopuru mardulena Ipar Euskadira eramateko. Hemendik, berriro, muga zeharkatuz, lau lurraldetan barrena izkutuan barreiatzen ziren. Guztira 700 inguru zabaltzen ziren Hego Euskal Herrian<sup>23</sup>.

TIERRA VASCAren egitura oso iraunkorra izan zen Pello Irujok zuzendutako 15 urteetan. Hilabetez hilabete lizarratar honek uneko gaiak izkiritzen zuen lehen orrialdean agertzen zen editorialean. Honekin batera, ia ia ale gehienetan, azaltzen ziren Donostia, Bilbo eta Iruñeko kronikak. Hasiera batetan, maiz gertaera bati buruzko gogoetak ba ziren ere, Frankismoaren aurkako burrukak haunditzen ziren neurrian, edukin informatiboa ere gehituz joan zen.

Ale guztietan errepikatzen zen bertze atala “Pajaritos” edo “Txoriak” deitutakoa zen. Hauetan bizpahiru perpaus laburretaz baliatuz, piper eta graziaz, pertsonai politikoaren pasadizo edo egoera politikoaren bitxikeriak plazaratzen ziren.

Euskerak ere bere orrialde berezia zuen, hilabete batzuetan bi izatera ailegatuz. Gai guztiak, tokian tokiko albisteak, artikulua sakonak, eztabaida kutsuko artikulua sakonak, jorratzen zituzten sail honetan, iraunkortasun eredugarria lortuz.

Lehen erran dugun bezala, 1960.ko hamarkada amaitzear zegoenean, Frankismo pean indartzen ari ziren mugimendu guztien ekintzek gero eta informazio zabalagoa eskatzen zuten. Hau zela eta, TIERRA VASCA bere atal informatiboak hedatuz erronka berri honi erantzuten saiatu zen. Agentzien albisteak, OPErenak batik bat, gero eta gehiago agertu ziren eta Euskaditik bidalitako berriek inoiz baino hedadura zabalagoa eskuratu zuten.

Ardatz ideologiko politikoei dagokienez honako puntutan laburbildu ditzakegu:

a) 1931.ko Apirilaren 14.ko Erregimen eta 1936.ko Urriaren Estatututik sortutako erakundeekiko defentsa.

Izan ere, bai editorialen bidez, bai Eusko Jaurlaritzak edota organismo baterakoi errepublikarrek kaleratutako agirien bitartez, atzerrian zeuden erakunde hauen izatearren arrazoia etengabe sustengatzen zen TIERRA VASCA. Instituzio hauen egituratzearen urtemugek ematen zioten aldizkari honi ondorengo textuaren antzekoak kaleratzeko aitzakiak: *Urrillean dira ogeitabost urte Euskadi'ko lenengo Jaurlaritzaz sortu zala. Gu ezin aztu. Sortu zanetik izan zitun gure maitasun eta begirapena. Eunki laurden bat. Urte bat exkax jaioterrian eta ogeita lau urte aundi erbestean!*

*Odoletan jaio zan Euskadi'ko Gobernua; Guda erdi-erdian. Odola inzan dizu bere indarra. Gudatean eta kartzeletan gizon dutako jaurlaritzaz gurea. Gure jaurlaritzaren sustraiak alde batetik abendaren sakonenean daude; aldetik berriz, ezpainetan irriparra eta biotzean abesti bat zituztela bizia eman zizuten euskaldunen biotzetan. Orrexegatik beste guziengandik*

22. Ibidem.

23. Ibidem.

24. *Tierra Vasca*, 63. 1961.ko Irailaren alea.



*ezberdin gure gobernuua. Bestela nola iraungo zun ainbeste ekaitz artean?*<sup>24</sup>.

Urteurrenetako artikulu hauez gain, etengabe, TVren kolaboratzaile ezaugarriek Errepublikak edota Euskal Autonomiaren funtsa historikoak zein ideologikoak azaltzen zituzten: “Gu errepublikarrak gara euskaldunak garelako. Euskal Herriaren mentalitate errepublikazalea datarik gabekoa da. Ez du hasierarik. Berezkoa bait da”<sup>25</sup>.

#### b) Mugimendu antifrankista ziren guztien onespina.

Hilabetekariak Accion Nacionalista Vascari lehentasuna ematen bazion ere, korronte politiko guztietako bozeramailatzat har dezakegu. Askotan dei zuzenak kaleratzen zituen bertze alderdiek parte har zezaten eskatuz.

*“Gure adiskide guziera, errepublikanok, sopzialistad, zenetistak eta abertzaliak, dirana dirala, lan txikiak bialdu dauskuezala, atal ontarako. Batez ere, Euzkadi barrun duguzun adizkidetzako da eskari au. “TIERRA VASCA” nai genuke liberal eta demokratiko diran euskotar guzrien abotsa izan dedilla, eta batez ere langile guziena”*<sup>26</sup>.

Ez ziren hitz ustelak gonbidapen honetan azaldutakoak. 1959.z geroztik Euskadin indartzen ari ziren ideologia berriek oihartzun zabala bereganatu zuten TIERRA VASCAn. Aldizkari honek gero eta arreta gehiago eskeini zion ETAk sortarazten zuen informazio osoari. Erakunde honen partaideen kontrako errepresio mota guztiak, atxilotetak, epailetak, hilketak, etab..., salatu ez ezik, haren ideei eta ekintzei ere leku berezia eman zien.

Jakina denez, urteak igaro ahala, ETaren ekintzak gogortuz joan ziren. Baina honek ez zuen oztopotuko TIERRA VASCAn hasiera hasieratik erakunde honekiko izan zuen nolabaiteko laguntza eta miresmena. Bertze aldizkari nazionalistek ETarekiko ixiltasunaren politika garatzen zuten bitartean, Pello Irujok zuzentzen zuen hilabetekariak, aipatutako jarrera eutsi zion.

#### c) Langile mugimenduaren ekintza eta mobilizazioen oihartzuna izatea.

TIERRA VASCAn gauza berrietara moldatze ahalmenak langilieriengana ere jo zuen. Acción Nacionalista Vasca delakoak, Bigarren errepublikako aro motzean, ez zuen denborarik izan langile mugimenduan erroak landatzeko, ezta langile arazoetaz politika bat garatzeko ere. Hala ere, 1960.z geroztik Bizkaiko langileek eta beranduxeago bertze lurraldetakoek bultzatutako mobilizazioek aukera ederra eman zioten aldizkari horri problematika honetaz ihardutzeko.

Bertze arloetan bezala, joera baterakoi eta zabal batez hurbildu zen TV giza sektore honetara. Hasiera batetan, Sindikatu historikoen protagonismoa oso garbi isladatzen ba zen ere, beranduxeago bertze korronte berrietako erakundeak, kristau kutsukoak HOAC, USO... nahiz komunisten ingurukoak, CCOO, azaltzen ziren.

Baina guzti hauen gaineratik, egundoko lehentasuna hartu zuten langilieriaren burruka eta mobilizazioek. Masen sujetu orokor eta amankomun horrek, “Bandas”eko grebatik, 1973 eta 1975 urtetako Nafarroako greba orokorrendaino “Tierra Vasca”k orrialde anitz bete zituen langileen ekintzez.

25. *Tierra Vasca*, 61. 1961.ko Azaroaren alea.

26. *Tierra Vasca*, 52. 1960.ko Urriaren alea.

## d) Eta amaitzeko, Nafarroarekiko zuen arreta berezia

Nazionalista ziren guztiak Nafarroaren bilakaera politikoak kezkatzen ba zituen ere, zer esanik ez, Irujotarrak. Gerra aurreko urteetan, anai guztiak, neurri batetan edo bertzetan, ideologia abertzalearen hedatze lanetan aritu ziren. Manuel, diputatu eta Errepublikaren ministroa, ezagunena izan arren, bertze anaiak era Nafarroan barreran EAJ ren helburuak aldarrikatuz su eta gar ihardun zuten. Eginbehar honetan sarturik, aukera paregabea izan zuten, lurralde honetan, euskal nazionalismoarean xede politikoaren gorabeherak ezagutzeko. Hain zuzen ere, eskuindarrek sortutako nafarzalekeria edo ezkertiar gehienek euskal estatuarekiko zuten ezezko jarrera.

Nafar problematikaren ezagupen honi, mota guztietako jende anitzekin zituzten harremanak gehitu behar dizkiogu, nafar aferetaz eskuratzen zuten informazio mordoa ulertzeko. Mikel Ezkeroren erranetan: *“Irujotarrek bertze atzerritarrek baino askoz hobekiago ezagutzen zuten Nafarroako giroa. Eta, errate baterako, Bizkaian edo Gipuzkoan, Euzko Alderdi Jeltzaleak informazio iturri arras hedatuak ba zituen ere, Nafarroatik alderdiaren zuzendaritzara zihoan informazioa, neurri haundi batetan, Irujotarrek zituzten harremanei esker bideratzen zen”*<sup>27</sup>.

Hau zela eta, Nafarroak egundoko garrantzia izan zuen TIERRA VASCAren bitzitan. Hasteko, lurralde bakoitzari zegokion kronika bakar bat izan beharrean, bi ziren nafarroak. Baina hau gutxi izango balitz, bertze artikuluetan, hilabetez hilabete, Nafarroako bilakaera politikoa aztertzen zen.

Ildo honetik informazio mota ezberdin batzuk ikus ditzakegu. Agintean zeuden sektore edo gerratik garaile atera ziren sektore politikoei eskeinitako artikulua. Adibidez, karlismoak aginte frankistekin izandako tirabirak, Montejurrako konzentrazioak, eta antzeko gertaerak, aiez ale Aldizkari abertzale honetan isladatzen ziren. Era berean, Nafarroako bizitza ekonomikoan izandako operazio maltzurak zein pertsonai eta erakunde bitxiak... etab. Oso goiz goizetik, Pello Mari Irujo, nafarroratu berria zen Opus Dei deitutakoaren garrantziaz, hain zuzen ere jabetu zen.

Honen ondorioz, ia ale batere huts egin gabe, “Jaungoikoaren obra” deitzen den organismo honetaz TIERRA VASCA oso kezkatutik eta erabat kritikoa azaltzen zen beti. Zenbait urte beranduago kaleratu ziren oihu eta slogan politiko batzuk *“Opustarrak! Naparratik kanpora!”, “Opus Deiko Unibertsitatea Nafarroan dago baina ez da Nafarrorena”, aldizkari honetan, 60. hamarkadatik aitzinat topa ditzakegu*<sup>28</sup>.

Hala ere, Nafarroako indar giza politikoak sektore hauetara bakarrik mugatzen ez zirenez, bertze motako informazio itxaropentsuagoak azaltzen ziren Buenos Aireseko aldizkari honetan. Izan ere, hamarkada hauetan Francoren kontra gauzatu ziren mugimendu zein elkarte guztien berri eman zuen. ETA, EGI eta IRATXE ri buruzko albiste anitz karrikatzeaz gain, langile mugimendurekin zer ikusirik zeukan informazio orok bere lekua aurkitu zuen TIERRA VASCA aldizkarian 1975.ko iraila arte.

Hilabete hortan, Franco diktadorea, oraindik, bizirik zegoelarik aldizkaria desagertu egin zen. Honen arrazoia, oinarrizko sustengatzaile eta zuzendari zen, Pello Mari Irujoren Europeratzea izan zen. Frankismoaren ondorengo urteetan bere sorterrian bertan betiko ideal abertzaleei ekiteko asmoz, Frantziara jo zuen, hilabete batzuk beranduago Euskal Herrira, behin betikotz, itzultzeko.

27. M. EZKERROK emandako lekukotasunaren arabera.

28. *Tierra Vasca*, 121. 1966.ko Uztailaren alea.

Ibidem. 123. 1966.ko Irailaren alea.